

7 / 2000 IRIZPENA

Junior-Enpresa programa arautzen duen Dekretu-Proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2000ko abenduaren 14a

I.- AURREKARIAK

Azaroaren 3an Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera, eta idatzi horretan Junior-Enpresa Programa arautzen duen Dekretu-Proiektuari buruzko informazioa eskatu zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikulua agintzen duenari eutsiz.

Dekretu-proiektu horren aurrekariak ekainaren 27ko 333/1995 Dekretuan daude, gazteen laneratzeko aukerak gehitzeko ematen diren dirulaguntzak arautzen dituena hain zuzen ere; dekretu hori maiatzaren 27ko 122/1997 Dekretuaren bidez aldatu zen lehendabizikoz, dirulaguntzen kopuruak eguneratzeko, eta gero berriro aldatu zen otsailaren 3ko 13/1998 Dekretuaren bidez, azaroaren 11ko Legegintzako 1/1997 Dekretuak sartutako berrikuntzei egokitzeko. Legegintzako 1/1997 Dekretu horrek, dirulaguntza bat arautzen duen edozein arauk izan behar duen gutxieneko edukari dagokionez, Euskadiko Ogasun Orokorraren Abiaburu Eratzaileen Legearen Testu Bategina onartzen du.

Berehalaxe bidali zitzaion aipatu proiektuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian agindutakoaren arabera, egoki irizten zieten proposamenak eta aburuak aurkez zitzaion eta Batzorde Iraunkorrera edo zegoen Lan Batzordera eraman zitzaion.

Azaroaren 27an lan bilkuran batu zen Gizarte Garapenerako Batzordea eta irizpenaren proposamena aurkeztu zitzaion Osoko Bilkurak onar zezan. Osoko Bilkurak 2000ko abenduaren 14an onartu zuen.

II.- EDUKIA

Junior-Enpresa Programa arautzen duen dekretu-proiektuaren testuak hurrengo atalak ditu: sarrera, 17 artikulua, xedapen erantsi bakarra, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken lau xedapenak.

Sarrera:

Sarreraren dekretuaren helburua zehazten da, hau da, irakaskuntza unibertsitario eta enpresa munduaren arteko hartu-emanak estutzea, laneratzeko bidean dauden ikasleei esperientzia praktikoa emanez, horrela euren prestakuntza hobetuz. Izan ere, 1986tik helburu horrekin ari dira Junior-Enpresa Elkartek EAEan eta horretarako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren laguntza jasotzen dute hainbat xedapen dela bidez; horri dagokionez, azken adibidea ekainaren 27ko 333/1995 Dekretuaren III. kapitulu da. Kapitulu hori indargabetu egin da eta dekretu-proiektu hau egin da, Euskadiko Junior-Enpresen elkartei ematen zaizkien laguntzak arautuko dituen araudi zehatza eta desberdindua ezartzeko asmoz.

Xedapenen corpusa:

1. artikulua Legearen helburua zehazten du, hau da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Junior-Enpresa Elkarte baten eta enpresa edo erakunde publiko edo pribaturen baten arteko

lankidetzaren hitzarmen proiektuei ematen dizkien laguntzak arautzea. Aipatu lankidetzaren asmoa egindako ikasketak azken ikasturtean praktikan jartzea da.

2. artikulua dakar laguntza jasoko dutenak EAEan dagoen unibertsitatearen bateko kidez osatutako Junior-Enpresa Elkarteak izango direla. Halaber, Junior-Enpresa horiek baldintza batzuk bete behar izango dituzte.

3. artikulua Junior-Enpresa proiektuak onartzeko aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko epea, zehazten du alde batetik, eta eskaerak onartzeko edo ukatzeko jardunbidea bestetik. Eskaerak onartzekotan, **4. artikulua** hauxe dio: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bere pentzura hartuko ditu kontratatutako aseguruaren kostua, proiektuak egiten diren bitartean ikasleen izan ditzaketen istripuen arriskuak eta erantzukizun zibilari aurre egiteko.

5. artikulua laguntzak hartzeko derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko epea zehazten du. **6. artikulua** eskaera-orriak aurkezteko era eta akatsak edo ez egiteak zuzentzeko era zehazten du. **7. artikulua** laguntza eskaerak kudeatzeko organo eskuduna, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta abar... zehazten ditu.

8. artikulua laguntzak 350 pezeta/ 2,10 eurotan jartzen ditu, orduko eta pertsonako eta laguntzak abonatzeko era ere zehazten du.

9. artikulua erakunde onuradunen betebeharrak arautzen ditu. **10. artikulua** laguntza horiek helburu berbererako emango diren beste laguntza batzuekin bateraezinak direla zehazten du.

11. artikulua Dekretu honen helburua betetzera zuzendurik dauden baliabideen jatorria zehazten du eta laguntza horietarako jarritako kreditua bukatuz gero laguntzak ukatzeko aukera ere zehazten du.

12. artikulua Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko babesa arautzen du.

13. artikulua Sail horrek agindutako dituen kontrolak eta bermeak zehazten ditu. **14. artikulua** zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagokiona bete beharra zehazten du.

15. artikulua hauxe zehazten du: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendariak emandako dirulaguntza aldatu egin ahal izango du dirulaguntza emateko ebaluatu ziren baldintzak aldatzen badira.

16. artikulua baldintzak ez badira betetzen dirulaguntza ukatu daitekeela zehazten du. **17. artikulua** hartutako diru kopuruak itzultzeko era arautzen du.

Azken Xedapen Bakarrak hauxe zehazten du: Egailan, S.A. Sozietate Publikoak diruz lagundutako jardueren jarraipen eta ebaluazio jarduketak egin ahal izango ditu.

Xedapen Indargabetzaile Bakarrak ekainaren 27ko 333/1995 Dekretuaren III. Kapitulua indar gabe uzten du.

Azken Xedapenetatik Lehenengoak eta administrazio jardunbideari dagokionez, Dekretu honen araudi ordeztaila zehazten du eta **Azken Xedapenetatik Bigarrenak** Dekretu hau gauzatzeko eta burutzeko behar diren xedapen guztiak hartzeko ahalmena ematen dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari.

Azken Xedapenetatik Hirugarrenak Dekretu honen aurka jotzeko administrazioarekiko auzibidea zehazten du eta bukatzeko, **Azken Xedapenetatik Laugarrenaren** arabera Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

III.- OHARBIDEAK

Prestakuntza akademikoa osatzeko lan praktikak bultzatzea oso garrantzitsua eta beharrezkoa da. Garrantzitsua eta beharrezkoa da bai ikaslearentzat, laneratzeko gaitasuna hobetzen duelako eta bai enpresarentzat, lanerako hobeto prestatuta dauden gizon/emakumeak kontratatzeke eta horrekin batera bere gaitasuna hobetzeko aukera ematen diolako.

Horregatik, Euskadiko EGABak positiboki baloratzen du unibertsitateko irakaskuntza eta enpresa mundua lotzea, Unibertsitate eta Enpresaren arteko hartu-emanak sendotuz, laneratzeko bidean dauden ikasleek esperientzia praktikoa izan dezaten, euren prestakuntza hobetuz eta unibertsitarioek lanpostua bilatzeko aukera gehiago izan dezaten.

Lan horretan dihardugu 1995etik, goi mailako prestakuntzarako Junior-Enpresa programaren bidez eta ikas-ekinean hezteko praktika programaren bidez (Unibertsitateen azpiprogramaren bidez); azken hori Lege honek indar gabe uzten duen 333/1995 Dekretuak arautu du. Dekretu horiek arteko desberdintasun nabarmenenak hauek dira, beste erazko betekizun batzuen artean:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak aseguru osagarriaren kostua hartzen du bere gain, 333/1995 Dekretuak araututako ikas-ekinean hezteko praktika programan egiten zuen legez.
- Laguntzak 350 pezeta dira orduko eta ikasleko, maiatzaren 27ko 122/1997 Dekretuak zekarren legez.
- Gure ustetan, berrikuntzarik nabarmenena hau da: laguntzak eskatzeko eta emateko prozesu bikoitza finkatzen da. Lehenengo fasean proiektua aurkeztu eta onartu egiten da, hala badagokio, 15 egun emanik ebazteko. Behin proiektua onartuta eta gauzatuta, bigarren fasean, laguntzak eskatzen dira gehienez 2 hilabete emanik ebazteko.

Izan ere, gure ustetan dekretu-proiektuan egindako aldaketa horrek Junior-Enpresek dirulaguntzak lortzeko egin behar dituzten tramiteen burokratizazio handiagoa ekarri lezake, gai hauek arautzen zituen lehengo Dekretuarekin alderatzen badugu behintzat. Horrela bada, 333/1995 Dekretuan, 14. artikuluan, laguntzak eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak zehazten ziren, oraingo Dekretua proiektuaren 3.1 eta 5.1 artikuluek dakartena, eta Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren Ebazpena gehienez 2 hilabetetan eman behar zen.

Horregatik, gure ustetan proiektuak onartzeko fasean, laguntzak ere eman behar dira, laguntza horiek diru kopurua geroago eman arren; horrela tramitazioa fase bakar batean geratzen da, 333/1995 Dekretuan gertatzen zen legez. Izan ere, oraingo dekretu-proiektuan zehazten den legez, proiektuak onartzeko faseak ez dakar konpromisorik Enplegu eta Prestakuntza Zuzendariarentzat proiektuaren dirulaguntzari dagokionez, bai ordea, aseguru osagarria, Sail horren pentzura aurre egiteari dagokionez.

Ildo horretatik, egungo dekretu-proiektuaren arabera ezin da dirulaguntzarik eskatu proiektua bukatu arte eta izan daiteke ebazpena bi hilabetera arte luzatzea; horrela dirulaguntza, proiektua bukatu eta handik eta bi hilabete eta erdira kobra daiteke. Gure iritziz, puntu honetan egungo dekretua aurrekoa baino hobea izan behar litzateke, Junior-Enpresak baliabide gutxiko eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak direlako eta proiektu bat abian jartzerakoan baliabiderik ez egoteak proiektu hori bertan behera utzi lezakeelako; hori dela eta bitarteko prozesu bat egion behar izango litzateke dirulaguntzak lehenago kobratzeko. Horri dagokionez, laguntzen kobrua arindu egin ahal izango litzateke dirulaguntza eskaera proiektua bukatu eta gero eskatu beharrean proiektua hastean denean eskatuko balitz.

333/1995 Dekretua indarrrik gabe geratu da eta horren ordez doaz Junior-Enpresa programa arautzen duen dekretu-proiektu hau eta gaur egun bakarrik lanbide-hastapenera eta zereginen bidezko lanbide-heziketara bideratutik dagoen ikas ekinean hezteko praktika Programa arautzen duen dekretu-proiektua. Eta horri dagokionez, ez genuke nahi aipatu 333/1995 Dekretua indargabetzeak lehen Unibertsitateetako azpiprograma deiturikoa bertan behera uztea, bestela, goi milako ikasketak egiten ari diren ikasleentzat praktiketan lanerako esperientzia lortzeko erarik bakarra dekretu-proiektu honetan zehaztutakora mugatuko litzateke, eta badaude era honetako proiektuak bideratzeko beste baliabide batzuk: euskal enpresak, eurek, ikasle unibertsitarioekin egin ditzaketan lankidetzak proiektuak, esaterako. Egoki deritzogu ere, programa desberdinetan helburu berberetarako zehazten diren laguntzen kopuruak homogeneousatzeari.

Horregatik, Euskadiko EGABak egoki deritzo dekretu-proiektuaren artikuluei **Oharbide** hauek egiteari:

Dekretu-proiektuaren 2. artikulua

Euskadiko EGABen arabera, hartu behar ez zen dirulaguntza bat itzultzeko edo zehapen prozesu bat abian badago, eta beste diru laguntza batzuk hartu nahi badira, ezinbesteko baldintza izango da prozesu horiek bukatuta egotea, eta horri dagokionez, 2.1.d) (eta 5.1.h, 8.3 eta 9.g artikulua) atalean **“izaera bereko laguntzak edo dirulaguntzak...”** dakarren lekuan egokiagoa da **“laguntzak edo dirulaguntzak, edozein izanda ere euren izaera...”** jartzea, alde batetik ez delako logikoa hartu behar ez zuen baina hartu duen dirulaguntza bat bueltatu arte beste dirulaguntza publiko batzuk hartzea; eta bestetik, zehapen prozesu bat abian badago arazo hori ebatzi arte egon behar izango da, dirulaguntza itzuli behar duen ala itzuli behar ez duen jakiteko.

Dekretu-proiektuaren 3. artikulua

Lehen justifikatu den legez, Euskadiko EGABak beharrezko deritzo Junior-Enpresa proiektuen onespena eta proiektu horiei zuzenduta dauden dirulaguntzen onespena lotzeari, 333/1995 Dekretuak zehazten zuen legez; baina dekretu-proiektu honen 9. artikuluan baldintzatzen Junior-Enpresa elkarteek hartu duten dirulaguntza erabili dutela justifikatzen duen txostena aurkeztu beharra agertzen da.

3. artikuluko bigarren atalean (eta 7. artikuluko hirugarren atalean) egiten den **“isiltasun negatiboari”** buruzko aipamena, Administrazio Prozedurari buruzko Legean jasota egon arren, administrazio-praktikatik kanpoa utzi behar litzateke, ahal den neurrian. Administrazioak administratuei zerbitzu ona eskaintzea Administrazioak lanpostuak sortzeari dagozkionez eginkizun proaktiboagoa edukitzea dakar, horixe baita Administrazio Prozedurari buruzko Lege berriaren muina. Lege berri horrek berrikuntza nabarmen legez **“isiltasun positiboa”** aurkezten du, administratuak aurre hartzen duen kasuetarako, eta oraingo honetan horrela da.

Bestalde, 3.1.c) atalean agertzen diren betekizunen artean beste bat sartzeari proposatzen dugu, hau da, lankidetzak kontratua edo akordioa egiten da enpresa batekin, bada, enpresa horrek irakasle moduko bat edo bat baino gehiago izendatu dezala proiektua gauzatzeko den bitartean ikasleen laguntza egokia jaso dezaten. Irakasle moduko horrek jardueren zuzendaritza, laguntza, ikuskapen eta kontrola lana egin ditzala, beti ere erakusteko asmoz. Horrela, enpresaren interesa eta proiektuak ikasleak prestatzeko duen izaera eta esperientzia horretan parte hartzen duten ikasleen segurtasuna bermatuko dira.

Dekretu-proiektuaren 5. artikulua

3. artikuluan eta Oharbideen atal honetako sarreraren adierazitakoari jarriki, egoki deritzogu artikulua hau kentzeari; laguntzak emateko baldintzak eta aurkeztu behar diren agiriak hirugarren kapitulari gehituko zaizkio. Horrela, dekretu-proiektuan zehaztutako bi faseak, hau da,

proiektuak onartzea eta laguntzak ematea, fase bakar batean geratuko da; horrela, tramite burokratikoak eta epeak txikiagoak izango dira eta Junior-Enpresa Elkarteei euren proiektuak aurrera eramateko behar beste baliabide bermatuko zaie.

Lehen aipatu bezala, ez zaigu iruditzen oso egokia laguntzak eskatzea eta laguntzak ematea praktikak bukatu eta gero egitea, praktikak bukatu arte horren berri ez edukitzeak ziurgabetasuna sortzen duelako eta ez lanpostua eskaintzen duenak ez lanpostu beteko duenak ez dakitelako a priori fondo galdurako laguntza hori jasoko duten edo ez duten jasoko. Horren berri izango balute zalantza asko argituko litzateke eta ikasleak eta enpresa mundua hurbiltzeko proiektu honetan parte hartzen duten alderdientzat oso pozgarria izango litzateke. Oso lagungarri izango litzateke dirulaguntzak *ex ante* onartu eta baloratuko balira, ordainketa *ex post* egin arrear.

1.e) atalean, hauxe zehazten da: laguntzak jasotzeko beharrezkoa da eskaera-orriarekin batera “... **erakunde onuradunak zerga betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena**” aurkeztu beharra. Euskadiko EGABak egokiago deritzo agirien artean “... **bete dituela egiaztatzen duen Foru Ogasunaren Ziurtagiria**” aurkeztu beharrari; horrela, laguntzak jasotzeko tramitea hasten denerako jakingo da zerga betebeharrak bete dituela, bestela tramite horrek ez luke zentzurik edukiko eta..

1.f) atalean, egokiago deritzogu laguntzen onuradun izateko eskaera-orriarekin batera “... **Gizarte Segurantzaren edo dagokion eta ahalmena duen Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearen Ziurtagiria**” aurkezteari.

Uste dugu 5.2 artikuluan “**praktikak**” hitzaren ordez “**proiektua**” hitza proposagoa litzatekeela.

Dekretu-proiektuaren 7. artikulua

Euskadiko EGABak arrazonamendu bera egin behar du 3. artikuluko bigarren atalari egin zaion “isiltasun negatiboa” erabiltzeari dagokionez.

3. atalean, eta eskaerak ebazteko eta jakinarazteko bi hilabeteko gehienezko epeari dagokionez, egokiago deritzogu epea laburtzeari, EAEan bakarrik bederatzi Junior-Enpresa daudelako eta ez garela eskaerez gainezka egongo.

Dekretu-proiektuaren 8. artikulua

8.2 atalean, eta urrerago proposatutako aldaketekin bat egiteko, hauxe esan behar luke:

“Dirulaguntza ordainketa bakar batean eta kopuru osoa abonatuko da, behin proiektua bukatu eta gero”

Dekretu-proiektuaren 14. artikulua

1.f) atalean esan bezala, artikulua honetan zehaztu behar da, laguntzak jasotzeko baldintza bat egongo dela, hau da, “...**Gizarte Segurantzaren edota dagokion eta ahalmena duen Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearekiko...**” betebeharrak bete dituela ziurtatu behar izango da.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABak egoki deritzo Junior-Enpresa Programa arautzen duen Dekretu-Proiektua, aholku-organo honek egin dizkion oharbideekin, tramitatzeari.

Bilbo, 2000ko abenduaren 14a

O.e.
Batzordeburua

Idazkari Nagusia